

EMAKUMEEN POBREZIA ETA PREKARIETATEAREN AURKA, BETI AURRERA!

2005eko martxoak 8 honetan, ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuok, emakumeek jasaten duten pobrezia eta behin-behinekotasuna salatu nahi ditugu. Pobrezia eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestek diote emakumeak, Euskal Herrian ere, kolektibo kaltetuenen artean direla. Hau dela eta, esan, Oinarriko Errentaren jasotzaileen %70a emakumezkoa da; pobreziaren eragina bost aldiz handiago da emakume bat buru den etxeetan, gizonezkoa buru den etxeetan baino; emakumezkoen langabezia-tasa %9,5ekoa da, gizonezkoa, aldiz, %6,5ekoa.

Zergatik pobrezia eta behin-behinekotasunak emakumearen profila du? Gizarte eta lan esparruetan, emakumeok, egunez egun, esparru zabalago betetzen badugu ere, lan-merkatura heltzeko garaian desabantaila garbitik abiatzen gara, eta diskriminazioak gure bizi-zikloaren zehar jazartzen gaitu emakumeak izategatik.

Bitzita pertsonala eta profesionalaren artean hautatzera behartzen gaituzte, existitu ez edo ez nahiko den zerbitzu publikoak betetzen ez duen pertsonen doako zaintza eta arreta gure gain utziz. Lanaldi bikoitza egitera behartzen gaituzte, ez baita onartzen esparru pribatuan sortzen den lana, gizonezko eta emakumezkoen artean, banatu eta egin behar denik. Emakume gazte, heldu eta adinduoi berezko bizi-proiektu autonomo eta independente bat baldintza duinetan izateko aukera ukatzen zaigu; etxebizitza eta diru-sarrera nahikoa izateko aukera ukatuz. Gure etorkizunari eta gauden eta egon nahi dugun esparruetan gudan eragin duten gaiei buruz parte hartu eta erabakitzeko aukera ukatzen zaigu.

Prestakuntza profesionala gero eta hobea izan arren, emakumeok izan ditzakegun enplegu eta lan-baldintzen ezaugarri komunak: Kontraturik gabeko enpleguak, ezegonkortasuna, behin-behinekotasuna, soldata-diskriminazioa, kategoria profesional baxuagoak, denbora partziala, azpikontratazioa, pairatzen dugun langabezia maila altuagoa. Guzti honek, gure bizi-baldintza eta gizarte eskubideen etengabeko pobretze bidean jartzen gaitu, egunez egun handiago den adin guztietako emakume kopuru bat gizarte baztertzerara eramanez.

Hau dela bide, eremu sindikaletik, emakumeek jasaten duten esplotazio eta diskriminazioa salatzen dugu, eta egun, egunero bezala, gure egitate sindikalaren jomugan honako aldarrikapen aldeko borroka:

- Enplegu iraunkor eta kalitatezkoa emakumeentzat.
- Ikusgai egoteko eskubidea; gizarte eta lan esparru guztietan presente, parte hartu eta erabakitzeko eskubidea.
- Emakumeek, batez ere, egiten dituzten zaintza-lanen balioztatzea, emakume eta gizonen arteko erantzunkidetasuna bermatuko dituzten neurrien ezartzea.

Pertsona, enpresa eta instituzio publiko orori exijitzen diegu inplikazio aktiboa esplotazio eredu hauen erroten kentzean, eta emakumeekin biziki grinatzen diren eredu hauei hertsiki lotzen zaion pobreziarena.

Kontzentrazioa: Martxoaren 8an, Virgen Blanca plazan, eguerdiko 12etan

